




Beste iturrietatik

Egiak eta gezurrak ahozko-aren eztabaidan*

Anna Cros, Montserrat Vilà

Artikulu honetan sekuentzia didaktiko bat proposatzen dugu, hezkuntza-aren bigarren mailan ari direnei zuzendua, ahozko diskurtsoari dagozkion argudio-estrategiak ikasten laguntzeko. Ikasleek egunero-egunero ikas-tetxean, familian eta komunikabideetako publizitatean jasotzen dituzten mezueta arrazoiketa desberdinen ezagutzak eta gezurrezko arrazoi-azterketak bide ematen diete argudioen eraginkortasuna eta balioa aztertzeko, anbiguitateak, gezurrak, azpikeriak eta pertsuasio-kutsuko enuntziatuei antzemateko. Gainera, aurkezten ari garen gogoeta hau oinarritzko pauso bat da, ikasleek arrazoiketaren mekanismo hauek jakinaren gainean erabil ditzaten.

Arrazoiketa edo argumentazioa ahozko ekintza bat dira egoera jakin batean, era formalean edo ez-formalean, eztabaida, desadostasuna edo polemikaren bat sortzen denean erabiltzen dena. Neska-mutil koskorrek txiki-txikitatik ikasi behar izan dute beren aldeko ikuspuntuen alde jokatzen, etxean, eskolan... Eta pertsuasio-kutsuko mezuak jaso dituzte, komunikabideetatik batez ere. Baina, oro har, ikasleei gutxi gogoetarazi zaie eskolan arrazoiketaren argudioen zer-nolakoaz, komunikazio-helburuak lortzen lagundu dezaketen estrategia argumentatiboez, nola arrazoi-tu behar duten beren diskurtsoak koherentziaz azaltzeko, eta, batez ere, eztabaidan argudioak haserrerik eta oldarkortasunik gabe nola azaldu. Gai hori gutxi landu da ikasleen artean.

Hezkuntzaren bigarren mailan gehiago sakondu beharko litzateke arrazoiketaren inguruko osagaien trebakuntzan, eta ariketa sistematikoak

proposatu beharko lirateke eragingarritasunez argudiatzen ikasteko, eta, solaskideekin haserrerrik gabe eta elkarlan-giroan mintzatzeko.

Horregatik, sekuentzia didaktiko bat proposatzen dugu artikulu honetan, hezkuntzaren bigarren mailan ari direnei zuzendua, eta ahozko hizkuntzan argumentazio-estrategiak ezagutzeko eta erabiltzeko egokitua. Uste dugu, ikasleek egunero jasotzen dituzten mezuen argudioak, egiazkoak eta gezurrezkoak, aztertzen ikasteak asko lagundu diezaiekeela arrazoen eragingarritasunaz eta balioaz jabetzen, anbiguitateak, azpikeriak eta gezurrak ikusten, eta bortxa-kutsuko enuntziatu pertsuasiboak ere aurkitzen. Horrezaz gain, gogoeta hau aldez aurreko eta beharrezko pauso bat ere izan daiteke, ikasleek beren mekanismo diskurtsiboak jakinaren gainean erabiltzen ikas dezaten.

Sekuentzia didaktiko honek, beraz, bi helburu ditu: bata, ikasleak goi edo erdi-mailako formalitate-giroan arrazoiketa egokia antolatzeke eta azaltzeko gai izatea, testuinguru horretan komunikazio-helbururik eragingarrienak lor ditzaten. Bigarrena, ikasleek solaskideen arrazoiak, egiazkoak eta gezurrezkoak, sumatzen ikastea, eta aurrakako argudioei erantzunez kontra-arrazoiketa eta beren iritzia aldez aurreko arrazoiak behar bezala azaltzea.

Sekuentzia didaktiko honetan, kontra-argudioaren gaia hartu dugu kontuan eta aurkakoarekin eztabaidan sor daitekeen agresio-punturen bat leuntzeko zenbait baliabide. Baina hauek ez dira sistematikoki lantzen. Dena dela, uste dugu bi alderdi horiek arrazoiketarekin estu lotuta daudela, eta mereziko lukeela beste sekuentziaren batean aztertzea (1).

Behar hainbateko lekurik ez, eta, ez dago hemen 30 orduko ikastaro baten arrazoiketari buruzko hiru sekuentziak azaltzerik. Artikulu honetan, batez ere, 10 orduko saio batek eskatzen duen bigarren sekuentzia landuko dugu: argudio desberdinak eta komunikaziorako egokiak ezagutu eta erabiltzea.

Sarrera honen amaieran dagoen eskeman sekuentzia didaktiko honen helburuak laburbiltzen dira, eta helburu bakoitzaren eta hori lantzeko proposatzen ditugun jarduera edo ariketen arteko erlazioa azaltzen: plangintza, analisia, gogoeta eta ekoizpena, baita ebaluazioarekin duten lotura ere.

Lehen bi helburuak argudiatzean erabiltzen diren arrazoi-moten ezagutzarekin eta erabilerarekin daude lotuta. Perelman-ek eta Olbrechts-Tyteca-k argudiaketaz burututako ikerketan (1989) egin duten argudio-sailkapenetik abiatu gara, erretorikaz eta arrazoiketaz egin den proposamen onartuenetako bat baita.

Lehenik, beraz, errealitatearen estrukturan (edo testuinguruan) oinarritzen diren arrazoiak aipatuko ditugu: hau da, esperientzia errotzen diren arrazoiak, gauza errealak eta komunitateak dituen baloreak. Argudio hauek bata bestearen segidako erlazioak jasotzen dituzte, kausa-ondorioa, baita pertsonaren eta bere ekintzen aldi berekotasuna ere. Batez ere, kausa-ondorioa, autoritatea, eredu eta etekina izeneko argudioak landuko ditugu.

Bigarrenik, errealitatearen estruktura oinarritzeko arrazoiak aipatuko ditugu, hau da, ikusten edo atzematen ez diren gauzen arteko erlazioetan oinarritzen direnak. Indukziotik abiatuta egiten da argudioen antolamendua, orokor bihur daitekeen gauza zehatz batetik hasita. Etsenplua eta analogia izango ditugu gogoan.

Azkenik, argudio quasilogikoak jorratuko ditugu, hau da, sistema logikoetan eta matematika sistematizatueta gertatzen diren erlazioen antzekoak. Printzipio logikoak bezala, *a priori* dira, ez dira esperientzian oinarritzen, baina, hain zuzen, pseudologikoak deitzen zaie, uka baitaitezke beti. Demostraziotik eta premisa orokorretatik abiatuta antolatzen diren arrazoiak azalduko ditugu (azken horiei erretorikak *entimema* deitzen die), baita simetria, elkarrekikotasuna, eta bateraezintasuna ere.

Azpikeriei edo gezurrei dagokienez, hau da, zintzotasunari objektibiteari eta arrazoiak garbiari begiratu gabe, diskurtsoaren arrakastaren bila egiten diren estrategiez hitz egiteko, erretorika klasikoak sailkatzen dituen proposamenetan oinarritu gara (adibidez, *Lo Cascio*, 1991). Horrela bereizten ditu gezur eta amarruak: *in dictione*, hitz-joko linguistikoan gertatzen direnak (anbiguotasuna, aipamenak, enuntziatuen ulertezina) eta *extra dictione*, azpikeriaz manipulaturako gauza errealak (gezurrezko kausalitatea, gezurrezko autoritatea), eraso eta deskalifikazio pertsonala (*ad personam*, *ad baculum*, *ad ignorantiam*), edota adimenean ez, baizik eta *pathos*-en soilik eragiten dutenak, pertsonaren emozio eta afektuetan sortzen direnak: errukiaz baliatzea (*ad misericordiam*), edo jendearen emozioari dei egiten diotenak (*ad populum*).

Lehen bi argudio-motak eta horiekin zerikusirik duten gezur eta amarruek osatzen dute sekuentzia didaktiko honen lehen helburua, horiek ezagutzeak eta erabiltzeak adimen-lan gutxiago eskatzen baitute, argudio quasilogikoei antzemateak eta horiek erabiltzeak baino. Bigarren helburuan, hirugarren argudio-mota hori eta arrazoiak eraginik izan dezaketenen figura erretorikoak aztertuko ditugu (*gradazioa*, *galdera erretorikoa*, *preterizioa*, eta *abar*). Askotan ekoizpen literarioarekin soilik dute zerikusia eta diskurtsoa apaintzeko bestetarako ez dira erabiltzen.

Azkenik, hurrenkera didaktiko honetan estrategia horien guztien integrazioa azalduko dugu, arrazoitzean eta kontra-arrazoitzean balio dezaketenenak.

Azken ataza

Ikasle-giroan asmatutako zerbaitetan edo egiantzeko egoeran, ikasle-bikote bakoitzak bere tesiaren alde hitz egin beharko du (bakarrizketa gisa eta bost bat minututan). Ondoren, bestelako iritziak aldeztu dituzten bikoteen gezurrezko arrazoiak sumatuko dituzte, behar bezalako arrazoiketaz erantzuteko.

Helburuak

- 1 Testuinguruko argudioak ezagutzea eta erabiltzen ikastea, baita errealitatea egituratzeko arrazoiak sustatzea eta gaiarekin zerikusia duten gezurak atzematea.

- 2 Arrazoi quasilogikoak ezagutzen eta erabiltzen ikastea, eta figura erretoriko batzuen balioaz jabetzea. Gezurrak eta azpikeriak atzematea.
- 3 Arrazoitzerakoan estrategia hauek integratzen ikastea. Beste ikasleen arrazoiaren balioaz eta ugaritasunaz ohartzea, kontrako arrazoiketa behar bezalako argudioez antolatzeko.

.1 taula: jarduerak

1. helburua	2. helburua	3. helburua
<i>Ariketa-motak</i> - Analisia/gogoeta: Shakespeare-ren <i>Julio Zesar-en</i> zatia. - Ekoizpena/gogoe-ta: berraztertzea eta argudio-motak eta (praktika foka-lizatua). - Planifikazioa: defentsaren eskema <i>Ekoizpena: 1. hel-burua: kasuen defentsa; hierarki-zazio desberdinen erlazioak.</i> - Praktika: <i>Enrike</i>.	<i>Ariketa-motak</i> - Ekoizpena/gogoe-ta: Figura erretori-koak, argudio-balioa dutenak (praktika fokalizatua eta integratzailea) - Planifikazioa: arrazoiaren hautaketa. - Ekoizpena/saioa: 2. helburua: Argudioen saioa: arrazoi eta kontra-arrazoiaren arteko erlazioak - Praktika: <i>Bizikleta</i>.	<i>Hariketa-motak</i> - Ekoizpena/gogoe-ta: azken simula-zioaren saioa. - Berraztertzea: azken ekoizpenean erabilitako argudioena. - Azken ekoizpena: 3. helburua. <i>Azken simulazioa: Eztabaida: tesi baten defentsa eta kontra-arrazoiketa.</i>
<i>Ebaluazioa</i>	<i>Ebaluazioa</i>	<i>Ebaluazioa</i>

Sekuentziaren faseak

1. helburua

Testuinguruko argudioak ezagutzen eta erabiltzen ikastea, eta errealitatea egituratzeko arrazoiak antolatzen eta gaiarekin zerikusia duten amarru eta gezurrak aurkitzen jakitea.

Lehen esan bezala, helburu hori lortzeko lantzen diren argudioak askotan erabiltzen dira eguneroko harremanetan eta ikasleek oso erraz aurki ditzakete adibideak beren eguneroko jardunean. Era berean, merezi du bi argudio-mota horien inguruko amarru eta gezurrak aipatzea, ikasleek horiek aurkitu eta kontrako argudioez erantzuten ikas dezaten.

Helburu honen edukiak .1 laukian daude laburbilduta. Ekintza horretan ariketa desberdinak egin daitezke bi argudio-mota horiek aurkitzen, analizatzen eta erabiltzen ikasteko.

Testuinguruko arrazoiak

1. Kausa eta ondorioa: bi gauzaren arteko erlazio logikoa ezartzen du.
2. Autoritatea: mezu-hartzaileak onartutako norbaiten autoritatea aipatzen du.
3. Etsenplua: Jarraibide bihurtzen den norbaiten autoritatera jotzen du.
4. Etekinak: Tesi jakin batek sortzen duen etekinaren alde egiten du.

Errealitatearen estruktura oinarritzeko azaltzen diren arrazoiak

1. Adibide batetik abiatuta antolatzen den argudioa: errealitateko gauza zehatz batetik abiatzen da, beste gauza bati edota zernahiri aplikatzen da.
2. Konparaziotik eta metaforatik abiatuz eratzen den argudioa: adibide-mota jakin batera jotzen du, arrazoitzen den beste gauzaren antzekoa dena edo erlazioa daitekeen irudiren batera.

Bi argudio-mota hauekin lotzen diren gezur edo amarruak

1. Erasoa (*ad hominem*) eta deskalkifikazio pertsonala (*ad quodque*): Irainetik, deskalkifikaziotik abiatuta, kolokan jartzen da aurkariarenganako uste ona.
 2. Errukiaren errekurtsoa (*ad misericordiam*): hizlariak mezu-hartzailearen errukia sustatuz konbentzitu nahi du.
 3. Norbaiten gezurrezko autoritatean oinarritzen da (*ad verumcundiam*): eztabaidagaian aditu ez den norbaiten autoritatean oinarritzen da argudioa.
 4. Argudio demagogikoa (*ad populum*): talderen baten onurarako egiten da, eta ez arrazoizko argudiatzean oinarrituta.
 5. Agintekeria (*ad baculum*): entzuleak konbentzitu egin nahi dira, benetako arrazoirik gabe, mehatxuka baizik.
 6. Gezurrezko kausalitatea (*post ergo, propter hoc*): bi gauzaren arteko gezurrezko edo logikaren aurkako kausa/ondorioa erlazioan oinarritzen da.
 7. Aldeztan den iritziarekin zerikusirik ez duten metafora, konparazioak eta adibideak erabiltzen dira.
-

Analisia eta gogoeta-ariketa

Adibide gisa proposatzen dugun lehen ariketa, eredu literario baten gogoeta eta analisia da (.1 taula): Shakespeare-ren *Julio Zesar*, erretorikako mila eskuliburutan aztertuta, oso aberatsa baita argudio-mota desberdinen erabilera. Gainera, lan horren erreferentzia historikoaren ezagutzak asko laguntzen du horren zati bat analizatzeko.

Literatur lan horren gainean J. L. Mankiewicz-ek egin zuen filmean ikasleek bi eszena ikusten dituzte: lehenbizikoan, Brutus Erromako jendearen aurrean, Zesaren hilketaren alde azaltzen da.

Bigarrenetan, Antoniok, hildakoaren goresmena aitzakiatzat hartuta, Brutusi eta horren jarraitzaileei eraso egiten die. Brutusen arrazoiak bere autoritatean oinarritzen dira, eta Erromako jendearen aurrean eredu mesianikoa

dela, dio. Antonio, berriz, Brutusen ondoren eskaintzen dion aukera baliatuz, publikoa bereganatzeko mintzo da eta, beste aldetik, Brutusen arrazoiak hankaz gora jartzen ditu, ironia bidez eta Zesaren onginahia frogatuz.

Bi pertsonaia horien arrazoen eragingarritasuna eta gezurretan esandakoak oso argi geratzen dira eta argudio-mota bakoitzaren helburu jakinak eta egokitasuna neurtzeko oso egokiak dira. Horren guztiaren azterketak asko lagundu dezake benetako arrazoiak eta gezurrak atzematzen.

Simulazio fokalizatuaren ariketa

Proposatzen dugun lehenengo helburu honen edukiak jorratzeko lana fokalizatuaren ariketa bat da. Horren bitartez, ikasleak lehen aipatutako argudioez balia daitezke, kasu edo gertaera zehatz batetik abiatuta. Hona hemen adibide bat, ikasleengandik gertukoia.

Simulazio-adibidea:

Enrike hezkuntzaren bigarren mailako laugarren kurtsoko ikasle da. Azken zikloa bukatzeaz, ikasgai guztiak gainditu ditu, bat izan ezik. Ardura handiko mutila da, bere lanean beti asko saiatzeko dena. Beka edo diru-laguntza lortu du, baina horrek espediente akademiko ona eskatzen dio. Hutsik egin gabe eskolara joan eta gogotik saiatu den arren, ikasgai horretan lortu dituen emaitzak, exijitzen den gutxiengotik aski urruti geratu dira.

Ariketaren antolamendua

- Ikasleak binaka jartzen dira lanean. Erdiak ikasgai hori gainditu ez duen ikaslearen rola hartzen du, irakasleak gainditzat emateko arrazoiak erabiliz. Beste erdiak, ez gainditzeko arrazoiak azaltzen dituen irakaslearena egiten du. Bikote bakoitzak bere jarreraren aldeko arrazoiak antolatu behar du eta argudio-mota bakoitza eztabaida horretan erabili. Diskurtsoak hiruzpalau minutu iraungo du.
- Argudioen antolamendua egiten minutu batzuk pasa ondoren, azalpenen garaia dator. Hasieran, jarrera bakoitzaren aldeko bikotearen ordezkaria hasten da hizketan, bakarrikzeta gisa. Ondoren, elkarriketari ematen zaio txanda, irakaslearen zuzendaritzapean. Ordezkari bakoitza aurkakoaren arrazoiak hankaz gora botatzen saiatuko da eta bere aldeko arrazoi berriak azaltzen.
- Bikote batzuen azalpenak entzun ondoren, irakasleak ikasleei eskatzen die hitz egin dezatela eztabaidan erabilitako argudio-motei buruz eta bakoitzak, lortu nahi zuen helburuari begira, bikoteen argudio-mota bakoitzak izan duen indarra neurtu dezala.

Ikasleek egiten dituzten beren eta kideen azalpenei buruzko gogoetan alderdi interesgarri asko azaltzen dira, argudiatutako tesiarekin lotuak, eta arrazoiak hobetzen lagunduko dietenak. Sarritan, ikasleek hizlariak duten botere-maila desberdinak atzeman eta konturatu ere egiten dira maila sozialak ere eragin handia duela argudioen estrategiak hautatzean.

Adibidez, autoritate edo etsenplu-arrazoiak erabiltzeko joera handiagoa azaldu ohi da irakasleen artean, ikasleetan baino. Eta, ikasleak ohartzen dira, hitz egiten dutenak, batez ere ikaslearen rola hartzen dutenak, beren

onetik atera gabe eta era onean hitz egitea oso garrantzitsua dela adierazpenak eragingarriak izango badira.

Gogoeta horrek arrazoiketan sartzen diren zenbait gezur aurkitzen eta hausnartzen ere asko lagundu dezake. Ondoren, ariketaren bigarren zatia ekiten zaio. Ikasleak hirunako taldetan banatzen dira, talde bakoitzean, eta txandaka, ikasle batek begiralearen rola hartuko du, hau da, eztabaida-girotik apur bat aldendu egiten da, eta kideen argudio eta gezurrak paperean jasotzen ditu.

Ariketaren bigarren zati honetan, gelako ikasle guztiak bi multzo handitan banatzen dira, alde batean, irakaslearen rola hartzen dutenak, eta, bestean, ikasgaia gainditu ez duen ikaslearena. Hasteko, talde bateko ordezkariak hartzen du hitza eta bere arrazoiak azaltzen ditu. Ondoren, aurkako jarrera hartu dutenen ordezkariak erantzuten dio. Hori eginda gero, beste taldeetako bozeramaileak mintzatzen dira, sigi-saga, beren argudioak azalduz eta aurkakoei erantzunez. Azkenik, begiraleek komentatu egiten dituzte eta baloratu .2 laukian ageri den balorazio-taularen arabera.

.2 laukia: balorazio-
-taula /1

Helburua: Testuinguruko arrazoiak ezagutzen eta erabiltzen jakitea, orobat errealitatearen estruktura oinarritzeko azaltzen diren argudioak ere.

	Erabilitako arrazoiak X markatu	Idatzi hemen hitz Gakoak	Argudioen Eragingarritasuna (goi-mailakoa, tartekoa, behekoa, hutsala)
1. <i>Testuinguruko argudioak</i> • Kausa-ondorioa. • Autoritatea. • Etsenplua. • Etekina.			
2. <i>Errealitatearen estruktura oinarritzeko argudioak</i> • Metafora eta konparazioa. • Adibidea.			
3. <i>Argudio-mota hauekin zerikusia duten gezurrak.</i> • Eraso eta deskalifikazio pertsonala. • Errukia. • Gezurretan oinarritutakoak. • Argudio demagogikoak. • Boterean oinarritutakoak. • Gezurrezko kausalitatea. • Metaforak, konparazioak, eta adibideak, tesiarekin lotu ezinezkoak.			

2. *helburua*

Arrazoi quasilogikoak ezagutzen eta erabiltzen jakitea. Arrazoitzeko balio duten figura erretoriko batzuk ikastea.

Lehen azaldu bezala, helburu honetan lantzen diren argudioak premisa orokorretatik abiatzen dira, eta sistema logiko eta matematikoen erlazioak aplikatzen ditu. Lehenbiziko helburuko gaietan bezala, askotan azaltzen dira arrazoiketan, baina ez da hain erraza horiek identifikatzea, arrazoitzeko gaitasun handiagoa eskatzen baitute.

Interesgarria da premisa orokorretatik abiatzen diren arrazoiak jorratzea. Premisa horiei, tradizio eskolastikoari jarraituz, *entimema* deitu diegu. Aristotelesek dioenez, silogismo izeneko arrazoiketa deduktiboen artean sartzen da. Baina, badago alderik entimemaren eta silogismoaren artean. Silogismoa errealtatean oinarritutako premisa batetik abiatzen da, ukaezineko premisa batetik. Adibide klasikoa: “Gizon guztiak hilkorrak dira. Sokrates gizon da. Beraz, Sokrates hilkorra da”. Entimema, berriz, egiantzetan oinarritutako premisetatik abiatzen da “Aita batek maite ditu bere seme-alabak. Beraz, aitak ezin dezake seme-alabarik hil”, edo arras-toren batetik “Odolak erakusten du hilketa bat gertatu dela. Beraz, odolez zipriztinduta dabilena izango da hiltzailea”. Silogismoa ukaezina da, entimema gezurtatu daiteke.

Ikasleek etengabe jasotzen dituzten mezu pertsuasiboak entimeman oinarritzen dira askotan, publizitatean besteak beste: “Garrantzitsuena autoaren segurtasuna da. X autoa, merkea ez bada ere, denetan segurue-na da. Beraz, X autoa erosi behar dut”. Berdintsu gertatzen da politikan eta irakaskuntzan: “Irakasleak ez dira eskolara inoiz berandu heltzen. Y irakaslea ez da oraindik etorri. Beraz, zerbait larria gertatu zaio Y irakas-leari” Gauza bera gertatzen da eguneroko bizitzan ikasleen artean ere. Horregatik oso garrantzizkoa da argudio-mota hori ikasleei irakastea, eta entimeman oinarritzen den premisa egia ala gezurra den sumatzea.

Figura erretorikoei dagokienez, askotan apaingarri huts bezala hartuak izan badira ere, garrantzi handikoak izan daitezke arrazoitzerakoan, hizlariak entzulea bere iritzia-aren alde jartzeko balio baitezake, galdera erretorikoa eginez, esate baterako. Laguntza handikoa izan daiteke –alde edo aurka– tesiarekin lotuta dauden irudi ezagunak edo zirrargarriak lotzea: metafora, konparazioa, adibidea...

Baliabide horrek asko lagundu dezake jendearen emozioak eta afektibitateak ukitzen, pertsonifikazioa erabiliz (prosopopeia), gehiekeriak esanez edota narrazio baten bitartez. Horrezaz gain, argudio-mota horiek bide ematen dute zeharka kritikaren bat edo beste egiteko, ironia eta preterizio bidez, esate baterako (2).

Erraza zaie ikasleei eguneroko harremanetan figura erretorikoen figurak aurkitzea. Horiek aztertzeak asko lagundu diezaieke figura erretorikoak identifikatzen eta arrazoiketarako erabiltzen. Bigarren helburu honen edukiak 3. eta 4. laukietan daude laburbilduta. Argudiatzeko baliozkoak izan daitezkeen figura erretoriko batzuk jasota daude 4. laukian. Eduki

hauek lantzeko ariketak eguneroko harreman komunikatiboetatik adibideetan, edota lehen erabilia dugu *Julio Cesar*-en pasartean, edo hurbileko gertaera batean oinarri daitezke. Adibidea:

Hamasei urteko neska batek gurasoak bere alde jarri nahi ditu, mendiko bizikleta bat eros diezaioten, martxak eta osagarri guztiekin. Berak dio, bizikleta hori erosiz gero, etxeko enkargu gehiago egingo dituela, diru eta denbora asko aurreratuko duela instituturako joan-etorrietan. Gurasoen erantzuna, baduela lehendik ere erabiltzen ez duen beste bat, mendiko bizikleta aldi bateko moda besterik ez dela, enkarguak eta eskolarako joan-etorriak oinez egin daitezkeela.

.3 laukia: arrazoi quasilogikoak

-
1. *Entimema*.–
 2. *Simetria*.– Honako erlazio matematikoa ezartzen du: “A berdin B baldin bada, eta C berdin A baldin bada, A berdin C izango da. ($A = B$ eta $B = C$: $A = C$). Demagun institutu batean eztabaidatzen ari direla eskolak goizeko 8etan ala 9etan hasi. Institutu guztietan 9etan hasten dira. Guk beste institutuetan bezala jokatu nahi dugu; beraz, 8etan hasiko gara.
 3. *Elkarrekikotasuna*.– Erlazio matematiko hau jartzen dugu: $A = B$, $B = A$. Eskolak goizeko 8etan hastea erabakitzen bada eta ikasleak ordu juxtuari heltzea, irakasleek ere gauza bera egin beharko dute.
 4. *Bateraezintasuna*.– Erlazio matematiko hau ezartzen da: A ezin da B-ren berdina izan ($A \neq B$). Ezinezkoa da eskolak goizeko 8etan hasi eta 2etan ikasgelan erne egotea.
 5. *Froga*.– Arrazoiak bistakoak dira eta ukaezinak, frogak baitaude.

.4: laukia: figura erretorikoak

-
- *Gradazioa*.– Arrazoiak ordenatzeko erabiltzen dira, ahulenetik bortitzenera, edo alderantziz.
 - *Metafora, konparazioa, adibidea*.– Aldezten den tesiarekin zerikusia duen gauza batetik edo alderdi batetik abiatzen da, arrazoitzeari indarra emateko.
 - Eztabaidan jartzen den arazoa, herriko beste zentro batean planteatutakoaren antzekoa da, eta nik proposatzen dugun bidetik konponduko dute” (konparazioa).
 - “Eskolak goizeko 8etan hastea, irteera ikusten ez den tunel beltz batean sartzea bezala da”. (metafora).
 - *Galdera erretorikoa*.– Hizlariak formulatzen duen galderaren bati berak ematen dio erantzuna, aurkakoen balizko erantzunei aurrea hartuz, hauek baztertzeko. Horrela ematen du entzuleen erantzunak bat datozela elkarrekin eta hizlariak esan duenarekin.

- *Prosopopeia*.– Izaki bizigabeei giza kalitateak aplikatzea da, eta entzuleen emozioak areagotzeko erabiltzen da.
- “Ikastetxe honetako hormek ez dute gogoratzen eztabaidaren batean inoiz adostasun adeitsu batera heldu ez denik; ez ahal da, horratik, gaurkoa lehenengo aldia izango!”.
- *Preterizioa*.– Hitz kontua ez den intentzio edo ekintza bat ukatzen da, horrek sor dezakeen nahasia edo kritika saihesteko.
- “Antonio: Ez dut Brutusen aurka egiteagatik hitz egiten”.
- *Ironia*.– Agerian esaten denari beste azpi-esanahi bat ematen zaionean gertatzen da. Eraso edo kritika bezala erabiltzen da, edota solaskideen artean konplizitate antzeko zerbait sortzeko.
- “Antonio: Beldur naiz ez ote diedan Zesar sastakaiaz hil zuten ohorezko gizonen kalterik egin”.
- *Hiperbolea*.– Errealitatea handiegitzea da edo bere onetik ateratzea, entzuleengan emozioa areagotzeko. Antoniok, Zesaren heriotzaz ari denean dio: “Ponpeioren estatua osoari odol gorria zerion”.

Ariketaren antolamendua

- Ikasleak binaka banatzen dira eta irakasleak bikote bakoitzari adierazten dio ikasitako zein argudio-mota edo amarru erabiliko duen. Bikote bakoitzari egokitu zaion arrazoi-motatik abiatuta, antolatu beharko ditu bai neskaren aldeko arrazoiketa, bai gurasoen aldekoa. Horrela, ikasleak konturatuko dira, arrazoi-mota batek balio dezakeela helburu desberdinen alde aritzeko.
- Ondoren, ikasleek bi paper desberdinetan idatzitako arrazoiak jaso egingo ditu irakasleak. Launako taldeak eratuko ditu, batzuek gurasoen rola hartuz eta besteek alabarena, eta talde bakoitzean jaso dituenetatik lau argudio emango dizkio talde bakoitzari.

Talde bakoitzeko partaideek beren tesiaren defentsa planifikatuko dute, egokitu zaizkien argudioak erabiliz. Ikasleek arrazoi horiek osa ditzakete edo iruditzen zaiena saihestu. Fase honetan sortzen den eztabaidak asko laguntzen du arrazoi-mota bakoitzak testuinguru jakin batean zenbaterainoko balioa duten jakiteko, baita argudioen maila neurtzeko ere.

- Azkenik, taldeak binaka aritzeko antolatuko da gela. Talde bakoitzak ordezkari bat jarriko du tesia azaltzeko. Begirale bat ere bai izango da, ariketaren jarraipena egin dezan. Hizketako txandak siga-saga egingo dira.

Ikasleek beren arrazoiak burutzen dituzten bitartean, irakaslea joan daiteke talde batetik bestera, ikasleak gogoetara sustatzeko edo zerbait osatzen laguntzeko.

Ariketa honen balorazio-eta .5 laukian ageri da.

.5 laukia: balorazio-
-taula/2

Helburua: Arrazoi quasilogikoak ezagutzen eta erabiltzen ikastea eta figura erretoriko batzuen balioa ezagutzea. Eta gezurrak detektatzea.

	Erabilitako argudioak X markatu	Hitz klabeak adierazi	Argudioen eraginkortasuna, goi-maila, ertaina, apala, hutsa
1.– Arrazoi quasilogikoak • Entimema • Simetria • Elkarrekikotasuna. • Bateriaezintasuna. • Demostrazioa.			
2.– Arrazoitzeke balioa duten figura erretorikoak. • Gradazioa. • Metafora. • Konparaketa. • Etsenplua • Galdera erretorikoa. • Preterizioa. • Ironia. • Hiperbolea.			
3.– Arrazoi-mota hauekin zerikusia duten gezurrak • Gezurrezko premisa. • Simetria-erlazio faltsuak, elkarrekikotasuna, bateraezintasuna.			

3. helburua

Arrazoitzean erabiltzen diren argudio-motak ezagutzea eta integratzea. Eta besteen arrazoiak eta gezurrak detektatzea, ondo eta egoki erantzuteko.

Orain arte burututako ariketek helburu bakoitzarekin lotuta dauden edukiak ikasleen beharren arabera sistematizatzen lagundu digute. Ariketa hauek arrazoiaketa lantzeko aukera eman digute. Eta hori oso garrantzitsua da, ahoz azaldutakoa esana geratzen baita.

Sekuentzia didaktikoaren helburu honetan ikasleei eskatzen zaie arrazoitze-erakoan ikas dezatela argudioak elkarrekin ondo josten eta lortu nahi duten funtzio komunikatiborako ondo egokitzen.

Arrazoiaketa, inoiz aipatu izan dugun bezala, (Cros, A eta Vilà, M., 1995), oso nabaria da elkarriketak duen garrantzia, izan ere azalpenaren eragin-

garritasuna, neurri handi batean, hizlariaren arrazoiak azaltzeko gaitasunaren baitan baitago. Beraz, aurreikusi egin behar da solaskideen arteko harremanak nolakoak diren, mezu-hartzaileen baloreak zein diren, eta erantzunek nolakoak izan behar duten. Horrek asko lagundu dio hizlariari arrazoi eraginkorrenak aukeratzen eta aurkako argudioak prestatzen.

Azken diskurtsoaren gaia planteatzerakoan, komeni da ikasleei erraza egingo zaien egoera batetik abiatzea eta horren aldeko arrazoiak eta aurkakoak eratzten laguntzea.

Azken diskurtsorako proposatzen dugun egoera hauxe da:

Demagun Institutu bateko gurasoen elkarteak nahi duela zuen iritzia jakin, aurtengo eskolaz kanpoko ekintzak antolatzeko. Gurasoek proposatzen dituzten ia ekintza guztiak behar bezala arrazoiak, onartuak izango dira, baina gerta daiteke ekintzaren bat, diru-faltagatik, alde batera utzi behar izatea. Beraz, irizpideren bat ezarri beharko da, zein ekintza, hain egokia ez delako edo, alde batera utzi beharko den zuek erabaki dezazuen.

Azken azalpenak burutu baino lehen, aurrez ariketaren bat egin daiteke, entzuleak nolakoak diren aurreikusita, arrazoiketa nola antolatu behar duten laguntzeko.

Ariketaren antolamendua

- Ikasleak launako taldetan banatuko dira, eta talde bakoitzak eskolaz kanpoko ekintzetan egokiena zein izan litekeen aukeratu du.
- Talde bakoitza aukeratu duen ekintzaren ordezkari bihurtuko da, eta arrazoiketa antolatuko du (arrazoiaren eskema bat egingo du eta aurkariaren arrazoiak aurreikusiko ditu), institutuko beste ikasleak bere alde jartzeko.
- Ondoren, gelako ikasle guztiak bi zirkulu handitan bilduko dira, A eta B. Hasierako talde bakoitzeko lau ikasleak bi A multzoan sartuko dira eta beste biak B multzoan. Horrela, denek batera, ariketa bera egingo dute.

Hasteko, bikote bakoitzeko lagun batek bere azalpena egingo du, baka-
rriketa gisa. Zirkulu bakoitzak hautatuko eskolaz kanpoko ekintza guztiak defendatu ondoren, bikote bakoitzak ekintza desegokiena zein den adieraziko du. Ikasleek, arrazoiaren indarraren arabera erabaki bat hartu beharko dute. Era berean, aurreikusi egin beharko dute bere burua nola kontrolatu, berotu gabe aurkariari erantzuteko.

Alde batera utzi nahi den ekintzaren aldekoek erantzuten jakin beharko dute. Amaitzeko, bikote guztiak hitz eginda gero, eztabaida irekia sortuko da eta behar izanez gero, botazioa egingo.

Amaieran, zirkulu bakoitzean erabili diren arrazoiaren indarra neurtuko da, aurreko ariketak neurtzeko erabili den balorazio-taularekin.

Bukaerako diskurtsoa prestatzen ikasteko balio du egin den ariketa honek, ikasleek, beren arrazoiketaren emaitzak eta kideen oharrak ikusita, azken hitzaldia edo diskurtsoa birplanteatzeko, ezagutzen duten egoe-

ra komunikatiboari ondoen egokitu zaizkion arrazoiak antolatuz. Oro har, argudioak koherenteagoak eta landuagoak azaltzen dira bukaerako diskurtsoan

Amaierako diskurtsoaren prestaketa errazteko, jar daitezke ikasleak lau-nako taldetan. Aurreko balorazio-tauletako emaitzen batuketak osatuko du azalpenaren azken balorazioa. Ikasleen autoebaluazioa errazteko, komeni da guztien azalpenak bideoan jasotzea.

Laburbilduz

Artikulu honen hasieran esan bezala, sekuentzia didaktiko honek hezkuntzaren bigarren mailan lantzea komeni den arrazoiketari buruz egingdako lanaren zati bat biltzen du. Baina, osatu egin beharko litzateke beste zenbait gai sakonago landuz: kontra-arrazoiketa, gizalegea, kortesia, desadostasunak leuntzea, haserrea eta agresioa saihestea eta adostunera-ko formulak bilatzea.

Azaldu dugun metodologia eragingarria da, batez ere, ahozko hizkuntzan, izan ere praktika fokalizatuak, balorazioak eta gogoeta metadiskurt-siboak asko laguntzen dute argudiaketa kontrolatuagoa eratzten, ahozko komunikazio-gaitasunean eragina duten maila guztietan.

Itzultzailea: Iñaki Ugalde

Oharrak

- * Katalanez “La discussió oral: argumentes i fal·làcies” In Articles de Didáctica de la Llengua i de la Literatura. 1997. 12: 19-33. Beraien baimenez itzulia eta berrargitaratua.
- 1 Hemen aurkeztu dugun sekuentzia hau argudiatzeari buruzko lan baten bigarren zatia da. Horrek esan nahi du, ikasleek hemen ageri diren alderdiak baino oinarritzkoagoak aurrez sistematikoki landuta eduki beharko lituzketela. Hala nola, argudiatzearen eskema bat egiten jakitea eta aplikatzea, tesi bat formulatzea, arrazoiak lantzea eta frogatzea eta argudioak hariltzeko konektore logikoak erabiltzea.
- 2 Erretorikak erakusten du hauetako figura batzuek (hiperbolea, preterizioa, ironia) gezur-kutsua dutela, errealitatea aizuntzea edo zerbait ezkutatzea bilatzen baitute. Hala ere, ez zait egokia iruditzen bereizketa hori hemen ezartzea, nahasgarri izan baitaiteke ikasleentzat.

Bibliografia

- Aristotele.** 1990. *Retórica*. Madrid: Gredos.
- Albadalejo, T.** 1989: *Retórica*. Madrid: Síntesis.
- Badia, D. Vilà, M.** 1984. *Jocs d'expressió oral i escrita*. Vic: Eumo.
- Cros, A. i Vilà, M.** 1995 La argumentación oral: una propuesta para la enseñanza secundaria (I) i (II). *Textos de didáctica de la lengua y de la literatura*. 3 eta 4.
- Lo Cascio.** 1991. *Grammatica dell'argomentare. Strategie e strutture*. Florència. La Nuova Italia.
- Mortara Garavelli, B.** 1991. *Manuale di retorica* (gaztelaniara itzulia: Manual de retórica. Madrid: Cátedra.
- Perelman, Ch. i Olbrechts-Tyteca, L.** 1989. *Traité de l'argumentation. La nouvelle rhétorique*. Ed. de l'Université de Bruxelles (traducció castellana: *Tratado de al argumentación. La nueva retórica*. Madrid. Gredos).
- Shakespeare W.** 1599. *Julii Cæsar*. Barcelona. Bruguera, 1981. (Mankiewicz-ek egindako filma J. L. Julio César).